


Itzulpenak eta lankidetzak



Diktaketa interaktiboak*

Mario Rinvolucrí

Irakasle askok erruduntzat jotzen dute euren burua ikasgelan diktaketa erabiltzen dutela onartzerakoan. Mario Rinvolucrík ohizko diktaketaren barruan ikasleari bere ekarki pertsonala ahal bideratuko liokeen hurbilketa interaktiboa iradokitzen du.

Guk geure zerbitzurako tailerretan batzutan irakaskideei zera galdetzen diegu: «Nork erabiltzen ditu hemen diktaketak?» Oinetako mugimendua eta alde batetik besterako begirada zeharkatuaren ondoren esku batzuk izutiki goruntz jotzen dute. Tailerretako aintzindari aurrerakoitzat jotzen naute eta dirudien ezinezkoa da, komunikazio-aroan, diktaketez mintzatzea. Modaz kanpoko kutsua daramate, itzulpenaren antza, gaiztoak izango balira bezala.

Eta, halere, aintzinako diktaketa zuzenak erabat lagungarriak dira, ingelesaren kasuan lez, idazkera eta ahozkeraren horren ezberdina duten hizkuntzetan. Ingeles-irakasleak askoz arrazoi gehiago ditu diktaketa egiteko Deutsch als Fremdsprache edo Français Langue étrangère-koak baino.

Haurra nintzelarik, gogoratzen dut nola diktaketak neure hoberenaren zatia besterik ez zidan eskatzen. Nere buruaren zati bat hemendik eta handik ibiltzen zen, ez bait zen orokorki lanean sarturik aritzen. Bazuen kotxea gidatzearekin antza. Beraz, hortik datorkit diktaketa interaktiboen asmoa. Zergatik ez eman ikasleari bigarren eginkizuna, fonema arrotzak grafemetan bihurtzekoarekin batera?

«Hezurdura soilik» diktaketak

Lehenengo laukia diktaketa interaktiboaren adibidea da. Bertan zuk esaldien hezurdura diktatzen diezu ikasleei, hauek, beraiez mintzatuz, osaketa burutu dezaten. Emaiezu behar hainbat denbora osaketarako.

Elkar itzazu ikasleak hirunaka, esaldien osaketa konpara dezaten. Sarritan jendeak pentsatu ere ez du pentsatzen nola erabiltzen duen espazioa. Azkenik, jar ezazu zeuk diktatutako esaldien hezurduraren transparentzia horman edo pizarran, jendeak batak bestearen diktaketaren zuzenketa egin dezan. Mugi zaitetz ikasgelan barna, zenbait osaketari begirada botatzearen. Zalantzarik gabe, horrez gainera, preposizio espazialei buruzko ariketa da hau; beraz, beharrezkoa izango zenuke lehenik arlo honetan prestakizun-lana egitea.

Oroimen diktaketak

Diktaketa interaktibo beste mota bategarriaren laukian dagoena bezalako kuadríkula erabiltzen du. Zuk beheko oroimen-galderak egiten dituzu eta ikasleek ikurren bat jartzen dute dagokien kaxan. Diktaketa jasotzen ari diren bitartean, eta horrekin batera, zein maiztasun-adberbio dagokien pentsatzen dute.

* Ingelesez «Interactive dictations», *Practical English Teaching* (1985eko abenduko alea) aldizkarian argitaratua.

© PRACTICAL ENGLISH TEACHING (1985) – Mary Glasgow Publications-en kortesiaz itzulia eta berrargitaratua.

Lehenengo laukia

1. Aretoan eseritzea atsegin dut.
2. Autobusean eseritzeko joera dut.
3. Trenean eserlekua aurkitzea nahiago izaten dut.
4. Familiarekin bazkaltzen nagoenean nere eseritzen naiz.
5. Egongelako tokirik atseginena da.
6. Logelako leihotik begiratzen dudanean eta ikusten dut.
7. Nahiago izaten dut buruarantz begira lo egitea.
8. behar ditut etxetik ikastola joateko.
9. Haurtzaindegira lehenengo aldiz joan nintzenean ilara eseritzen nintzen.
10. OHOr lehenengo aldiz joan nintzenean matematika-irakaslearen eseritzen nintzen.
11. Haurra nintzenean egongelako tokirik atseginena zen.

Oroimen-galderak

1. Erabiltzen al duzu zintzarrik esnatzeko?
2. Idazten al duzu erosketa-zerrendarik?
3. Geroko gertakizunetarako egunerokorik gordetzen al duzu?
4. Zerbait gogoratu behar duzunean, idazten al dituzu gauzak eskuetan edo besoetan?
5. Idazten al duzu egin behar dituzun gauzen zerrendarik?
6. Eskatzen al diozu besteri gauzak gogorarazteko?
7. Bertsoak erabiltzen al dituzu gauzak gogoratzeke?
8. Idazten al dituzu gauzak hormako egunkarian?
9. Zerbait galdu duzunean, zeure buruan berreraikitzen al duzu egindako guztia?
10. Telefono-zenbaki berria entzuterakoan, zuzenean gogoratzen al duzu?
11. Toki bitxietan jartzen al dituzu gauzak hobeto gogoratzearren?
12. Zerbait galtzen duzunean, erabat larritzen al zara?
13. Telefono-zenbaki berria entzuten duzunean, errepikatu egiten al duzu gogoratzearren?
14. Azkondorak erabiltzen al dituzu hilabeteen luzera gogoratzeke?
15. Errepideren batean autoa gidatu baduzu, ongi gogoratzen al duzu?
16. Norbaitengana aurkeztua izan ondoren, gauza al zara bi minutu barru haren izena gogoratzeke?

Bigarren laukia: oroimen-diktaketarako kuadrikula

	inoiz ez	gutxitan	batzutan	sarritan	beti
1.					
2.					
3.					
4.					
5.					
6.					
7.					
8.					
9.					
10.					
11.					
12.					
13.					
14.					
15.					
16.					

Elkar itzazu ikasleak hirunaka eta esaiezu konpara ditzatela euren kuadrikulak. Diktaketa jasotzen banakako lana egin ondoren, beharrezko gertatzen zaie agian lehen inork arretarik eman ez dion arloren bati buruz aldamenekoekin komunikatzea.

Azken burutapenak

Aipatu ditugun bi diktaketa-ereduek pentsaraziko zizutelakoan gaude. Zer diozu beste diktaketa mota honetaz? Ikasleei hau galdetzen diezu: «nola hitzegiten dizue jendeak?»; eta kuadrikulak honako zutabeak dauzka: *bigunki*, *haserre*, *emeki*, *oso azkar*... Agian zutaberen bat libre utz zenezake, ikasleek beren adberbioak jar ditzaten... Zer diozu abereen berezitasunei buruzko galde-

rak egin ditzakeen diktaketaz? Esate baterako: oiloa, behia, galeperra, gizona, untxia, zizarea... Zeintzuk egin dezakete hegan? Edozein gaiez eta, atalase maila behekoenak aparte, ia edozein mailatan presta ditzakezu diktaketa interaktiboak.

Erreferentziak

Eskainitako diktaketa espaziala Christine Frank eta Mario Rinvoluciren *Grammar in Action* liburutik hartuta dago (Pergamon eta Hueber). Oroimen-galderak John Morgan eta Mario Rinvoluciren *The Q Book*-etik hartuta daude (Pilgrims Publications). Liburu hau OUP-n salgai egongo da 1987. urtean. Beste pare bat diktaketa interaktibo ere aurkituko dituzu liburu honetan.

Itzultzailea: Patxi Ezkiaga

DICTADOS INTERACTIVOS

Los profesores todavía parecen sentirse culpables cuando reconocen haber utilizado dictados en clase. Mario Rinvolucrí sugiere la adopción de un enfoque

interactivo que permita a los estudiantes realizar sus propias aportaciones en el marco del dictado tradicional.

INTERACTIVE DICTATIONS

Teachers still seem to feel guilty when they admit to using dictations in class. Mario Rinvolucrí suggests adopting an interactive approach which allows

students to make their own contributions within the usual dictation format.

DICTÉES INTERACTIVES

Les professeurs semblent toujours se culpabiliser lorsqu'ils reconnaissent avoir fait faire des dictées durant leurs cours. Mario Rinvolucrí suggère une ap-

proche interactive qui permette aux étudiants de réaliser leurs propres apports dans le cadre de la dictée traditionnelle.